



EHU

Jarduera Plana 2025-2026

Euskal Herriko Unibertsitatea/
Universidad del País Vasco

Bizkaiko Campusa



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO


BIZKAIKO CAMPUSA

JARDUERA PLANA 2025/2026

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	5
1. GOBERNANTZA ETA CAMPUSEKO HARREMANAK.....	10
1.1. Helburu nagusiak.....	11
1.2. Jarduera ildo nagusiak.....	11
2. BIZKAIKO CAMPUSEKO AZPIEGITURA ETA GARAPENA	13
2.1. Helburu nagusiak.....	14
2.2. Jarduera ildo nagusiak	15
3. IKASLEEN, EUSKARA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA	17
3.1. Helburu nagusiak.....	18
3.2. Jarduera ildo nagusiak	19
4. ONGIZATE ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARITZA	22
4.1. Helburu nagusiak	23
4.2. Jarduera ildo nagusiak	23
5 EKINTZAILETZA, ENPLEGAGARRITASUN ETA TRANSFERENTZIAKO ZUZENDARITZA	27
5.1. Helburu nagusiak	28
5.2. Jarduera ildo nagusiak	29
6. ESPERIENTZIA GELAK	33
6.1. Helburu nagusiak.....	34

6.2. Jarduera ildo nagusiak	35
7. Miguel Unamuno Ikastetxe Nagusia	37
7.1. Helburu nagusiak.....	38
7.2. Jarduera ildo nagusiak	38
8. BIZKAIA ARETOA	40
8.1. Helburu nagusiak	41
8.2. Jarduera ildo nagusiak	41
9. KLINIKA ODONTOLOGIKOA	45
9.1. Helburu nagusiak.....	46
9.2. Jarduera ildo nagusiak	46



AURKEZPENA

Ikasturte bakoitza guztion artean amesten dugun Bizkaiko Campusa eraikitzen jarraitzeko aukera berri bat da: espazio ireki, dinamiko eta anitza, berrikuntza akademikoarekin, kultur sorkuntzarekin, ekintzailetzarekin, jasangarritasunarekin eta komunitate osoaren ongizatearekin konprometitua dagoen campusa. Hasierako trantsizio-aldi baten ondoren, jarduera plan berri hau ibilbide orri sendoagoa da, hartutako konpromisoetan aurrera egitea, proiektu estrategikoak finkatzea eta gizartearekin lankidetza-bide berriak irekitzea ahalbidetuko duena.

Campuseko Errektoreordetzak, eztabaidarako, entzute aktiborako eta partaidetzarako gune izateko xedearekin, gobernu organoak indartzeko lan egingo du, ikasleen ahotsari arreta berezia eskainiz. Ikasleen taldeekin bilerak bultzatuko dira aldizka, eta ikastegiekiko hurbiltasuna indartuko da; aldi berean, harreman egonkorra mantenduko dira Bizkaiko erakunde eta eragile nagusiekin — Eusko Jaurlaritza, Foru

Aldundia, Bilboko Udal eta Leioako Udal —, proiektu estrategiko partekatuak sendotzeko.

Campuseko Azpiegitura eta Garapen Zuzendaritzak ikasturte erabakigarri bati ekingo dio obra estrategikoen aurrerapenean, hala nola Basurtuko Medikuntza Fakultate berriaren eta Klinika Sozial Odontologikoaren proiektuaren aurrerapenean. Gainera, Errektoretzan, Ikasgeletan, Zientzia eta Teknologia Fakultatean eta Liburutegi Nagusian aldaketa garrantzitsuak egingo dira. Horrekin batera, ohi bezala, irakaskuntza eta ikerketa ekipamenduetarako laguntzak deitu eta kudeatuko dira, bai eta landa praktikak, unibertsitate hedapeneko jarduerak eta bidaia poltsak egiteko laguntzak ere, campusak bere ikastetxeetako premia akademiko, ikertzaile eta sozialei erantzuteko duen gaitasuna indartuz.

Ikasle, Euskara eta Kultura Zuzendaritzak dinamika parte-hartzaile berri bat jarriko du abian, eta, horren ondorioz, Campuseko Kultura Batzorde bat sortuko da, kultura programazioa indartzeko eta ikasleei sorkuntzarako eta ikusgarritasunerako espazio berriak irekitzeko. Sorkuntzarako beken, jaialdien eta Bizkaiko kultura eragileekiko lankidetzaren bidez, bultzada handiagoa emango zaio EHUKultura markari, eta EHUREn unibertsitate nortasuna eta gizarte proiekzioa indartuko dira.

Ekintzailetza, Enplegagarritasun eta Transferentzia Zuzendaritzak inkubagailuen eta ekintzailetza gelen Zitek sarea garatzen jarraituko du, eta Ekin 48, Handira Jo, Think Big edo Ikasberri bezalako ekimenak sustatuko ditu, unibertsitate-komunitatean kultura ekintzailea eta berrikuntza sustatzeko. Bizkaiko enpresa ekosistemarekiko eta erakundeekiko harremanak sendotuko dira, eta, aldi berean, enplegu foroak, azokak eta praktiken nazioarteko programak antolatuko dira, ikasleen enplegagarritasuna indartzera eta jakintza gizartera transferitzera bideratuta.

Ongizate eta Jasangarritasun Zuzendaritzak Campus osasun garriagoa eta ingurumenarekiko begirunetsuagoa sustatzen duten ekimenak bultzatzen jarraituko du. Mugikortasun integraleko plan bat diseinatuko da, unibertsitate komunitateak

berak egina, garraio eredu iraunkorrago, irisgarriago eta eraginkorrago baterantz aurrera egiteko, batez ere Leioako eremuan. Bizikletentzat eta mugikortasun pertsonalerako ibilgailuentzat gordetako guneak handituko dira, eta Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza indartuko da garraio publikoko lineak hobetzeko. Ongizatearen arloan, osasunaren prebentzio integralera bideratutako neurriak jarriko dira abian, eta kirol bizitza indartuko da, lehiaketak, naturako programak, Kirolaren Astea, Tipi Tapa martxa eta goi mailako kirolarentzako tutoretza plana eginez. Ekintza horiek Campusa ingurune osasungarri, inklusibo eta parte-hartziale gisa sendotuko dute, bizimodu aktibo eta iraunkorrik sustatzen dituena.

Esperientzia Gelak belaunaldien arteko topagune paregabea izaten jarraituko dute, bizaldi osoko ikaskuntzari irekia. Irakaskuntza eskaintza berrikusi eta eguneratuko da, prestakuntza modalitate berriak bultzatuko dira, hala nola mikrokreditzialak, eta hainbat kolektiboren inklusioa indartuko da gizarte erakundeekin lankidetzan arituz. Gainera, zentroaren kultur eta ikasketa programazioa areagotuko da, euskara eta euskal kultura ekimen guzietan modu aktiboan txertatuz.

Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiak aurrera egingo du espacio komunitario, inklusibo eta ekosocial bihurtzeko bidean. Berdintasunaren, iraunkortasunaren, ongizatearen eta bizikidetzaren inguruko lan batzordeak jarriko dira martxan, eta, aldi berean, kultura, gizarte- eta kirol-programazioa indartuko da. Arreta berezia eskainiko zaio kalteberatasun egoeran dauden ikasleen harrerari, eta lankidetza areagotuko da gizarte eta komunitate erakundeekin, ikastetxea ingurunera zabaltzeko.

Kongresu, jardunaldi eta kultur jardueretarako erreferentziazko egoitza izaten jarraituko du Bizkaia Aretoak, eta EHUREN Bizkaiko proiekzio sozial eta akademikoa sendotuko du. Bertako espazioen erabilera optimizatuko da eta unibertsitatearen irudia eta hiriarekin duen lotura sendotzen duten jarduerak bultzatuko dira, Bilboko Udalarekin eta lehen mailako jaialdi eta kultur eragileekin lankidetzan arituz.


Odontologia Klinikak erreferentziazko eredu unibertsitario sozial baterantz lanean jarraituko du. Zerbitzuaren kalitatea indartzera bideratuta hainbat ekintza proposatzen dira, protokolo klinikoak optimizatzetik eta etengabeko ikastaroen eskaintzatik hasi eta prozesuak digitalizatzen eta baliabideen kudeaketa hobetzen arte. Halaber, harreman instituzionalak bultzatzea aurreikusten da, hainbat kolektibotan prebentzio-programak garatzeko eta etorkizunean Bilbora lekualdatzea erraztuko duen programa estrategiko bat prestatzeko.

Oro har, ekintza horiek guztiekin Bizkaiko Campusaren aniztasuna eta aberastasuna islatzen dute. Eduardo Chillidak asmatutako gure logotipoa inspiratzen duen Zientziaren Zuhaitza bezala, gure Campuseko adar bakoitza norabide desberdin batean hazten da — irakaskuntza, ikerketa, kultura, iraunkortasuna edo ongizatea —, baina guztiekin eusten dien enbor bera partekatzen dute: ezagutza sortzeko eta zabaltzeko misioa, eta, unibertsitate kudeaketan parte hartzen duten pertsona gisa, loratzeko baldintza ezin hobeak jartzea. Horrela bakarrik proiektatu ahal izango gara etorkizun hurbilago, parte-hartzialeago, berritzialeago, jasangarriago, inklusiboago eta gure komunitate osoari irekiago baterantz. Eman ta zabal zazu.

Estitxu Garai Artetxe

Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordea





EHU

1.

GOBERNANTZA ETA CAMPUS-EKO HARREMANAK

1. GOBERNANTZA ETA CAMPUSEKO HARREMANAK

1.1. Helburu nagusiak

Bizkaiko Campuseko gobernu-organoak eztabaidarako eta partaidetza gardenerako foro bihurtzea.

Ikastetxeetako zuzendaritzekin eta Bizkaiko Campuseko ikasle-talde ezberdinekin harremanak bultzatzea, hobetzeko esparruak elkarlanean pentsatzeko.

Campuseko Errektoreordetzena eta Bizkaiko erakunde eta gizarte-eragile nagusien arteko harremanak sustatzea.

Komunitatea Campuserako planen diseinuan inplikatzea.

1.2. Jarduera-ildo nagusiak

- Bizkaiko Campuseko Batzarraren araudia aztertzea, parte hartzeko mekanismoak errazteko.
- Campuseko Batzarra osatzen duten kolektiboen parte-hartzea sustatzea, kolektibo guztien ordezkaritza eta parte-hartza sustatzeko, haien iritziak eta proposamenak entzun daitezen.
- Ikastegietako gobernu- eta ikasle-organoen eta bertan dagoen komunitatearen hitz-txandaren plangintza aztertzea, beren kezkak

Campuseko Batzarreko kideei helarazteko.

- Errektoreordetzako taldeak Campuseko ikasleen ordezkarien komunikazio-bideak indartzen jarraituko du. Ikasleen kezkak bideratzeko espazio berriak aztertu nahi dira.
- Errektoreordetzako zuzendaritza-taldea Campuseko ikastetxeetatik hurbil mantentzea, ahal den neurrian zuzendaritza-taldeekin lankidetzan aritzu.
- Campuseko Batzordean Errektoreordetzako zuzendaritzen jardueren berri ematea, abian dauden ekintza eta projektuei dagokienez. Campuseko Batzarrean parte-hartzaile guztiok elkarrekin lan egiteko informazioa izan dezagun
- Ikasleen Kontseiluarekin aldian behin bilerak egitea, sektore horretan dauden beharrak eta arazoak ezagutzeko.
- Urtero, erretore-taldearekin batera, entzuteko txandak egitea. Errektoreordea Bizkaiko ikastetxe guztietai egongo da.
- Harreman instituzionalak sustatzea, bilera formal eta informalak eginez erakunde eta eragile ekonomiko eta sozialekin, bereziki Eusko Jaurlaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Bilboko Udalarekin eta Leioakoarekin.
- Komunitatea campuseko proiektu estrategikoetan inplikatzea, hala nola mugikortasun-planean.

2.

**BIZKAIKO
CAMPUSEKO
AZPIEGITURA ETA
GARAPENA**

2. CAMPUSEKO AZPIEGITURA ETA CAMPUSAREN GARAPENA

2.1. Helburu nagusiak

Zuzendaritza honen helburu nagusia da Bizkaiko Campusean egin beharreko obra guztiak Campuseko Gerentziaordetzarekin batera kudeatzea, bertako espazioen erabileraren antolamendua, egokitzapena eta irakaskuntza-azpiegituraren zuzkidura.

Ildo horretan, 2025/26 ikasturtean hainbat jarduketa egingo dira Campuseko azpiegiturak hobetzeko, eraikinetan dauden gabeziak pixkanaka hobetzeko, indarrean dauden araudiak betetzeari dagokionez. Laborategiak jartzea, segurtasuna hobetzea, espazioak egokitzea eta abar ahalbidetuko duten obrak egingo dira. Gainera, amaitutako obren jarraipena egingo da.

Era berean, Basurtuko Medikuntza Fakultate berria eraikitza errazten duten jarduketekin jarraituko da, baita Klinika Odontologikoaren proiektua abiarazi.

Beste helburuetako bat laborategietako eta ikasgeletako irakaskuntza-ekipamendua hobetzea da, eta hori dagokion deialdiaren bidez gauzatuko da.

Bestalde, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko laguntzak kudeatzen dira.

Era berean, UPV/EHUri oro har eta Bizkaiko Campusari bereziki balio erantsia eman diezaioketen organismo eta erakundeekin hitzarmenak abian jarri eta garatu nahi dira.

2.2. Jarduera ildo nagusiak

25/26 ikasturtean, jarduera-ildo nagusiak honako hauek izango dira:

2.2.1.- AHUAPBren esparruko jarduerak:

- Leioa-Erandioko guneko Errektoretzako eta Gelategietako plataforma bota eta espazio berrien egokitzapena.
- ZTF eraikinaren inguratzailearen eraberritzeko obren lehen fasearekin ekin.
- Leioa-Erandio guneko Liburutegi eraikinaren atrio berritzea.

2.2.2. Finantzaketa arrunteko obrak.

- Eraikinen arriskuak ebaluatzeko txostenen, beharrezko berrikuntzen eta gorabeheren ondoriozko obrak egingo dira. Aurrekontu-baliabideen arabera lehenetsiko dira.
- 2025/26 ikasturterako aurreikusitako obra batzuk hurrengoak dira:
- EIB I-eko fatxadan beira aldatzea.
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatean araudia betetzeko igogailua jartzea.
- Sabai-leihoa konpontzea I. ikasgelategian
- Patologia analisia Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eraikin nagusiaren egituran.
- Fatxadako sutearen ondoriozko frisoa konpontzea (Esperimentzia Gelak)

2.2.3. Aurreikusitako beste jarduera batzuk.

- Irakaskuntza-azpiegitura: Ikastetxe eta sailei zuzendutako irakaskuntza-laborategietarako azpiegitura-deialdi bakarra egin da, laborategi horiei

irakaskuntza praktiko eraginkorra eskatzen duen material inventariagarria emateko.

- Mikel Laboa Plazaren itxura eta erabilgarritasuna hobetzea.
- Hitzaldiak, Jardunaldiak eta Unibertsitate Hedakuntzako beste ekintzak: Bi deialdi egingo dira 2025-26 ikasturtean egiten diren jarduerei laguntzeko.
- Landa-praktikak: Aurreko urteetan bezala, Campuseko web orriaren bidez bi lagunza-deialdi egingo dira. Lehenengoak urtariletik uztailera bitarteko aldiak hartuko ditu, eta bigarrenak, berriz, irailetik abendura bitartekoak.
- Bidaia-poltsak: Ikerketa Errektoreordetzak egiten duen deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten Bizkaiko campuseko ikertzaileen bidaia-poltsaren eskaerak kudeatzea.

3.

IKASLEEN EUSKARA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA

2. IKASLEEN, EUSKARA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA

2.1. Helburu nagusiak

Zuzendaritza honek, EHuko ikasleen eta Partaidetzarako Errektoreordeari, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordeari, Koordinazio eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordeari eta Campuseko Errektoreordeari lagunduko die hainbat jardueretan. Alde batetik, Campuseko ikasleen bizitza kulturala zabaltzea eta aberastea dugu helburu, Campusetan zein Bizkaia Aretoan ikasleentzako propio antolatuko diren jarduerei garrantzia emanet.

Bestetik, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, ikastegiek, sailek eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak egiten dituzten kultur ekimenetan lagunduko da. Ikastegietan programatzen diren ekintza kulturalak, batez ere ikasleek antolatutako horiek, indartzea izango da erronka nagusietako bat. Horrez gain, Campusaren kanpoko irudia sustatzeko jarduerak ere koordinatu eta sustatuko dira, kasu honetan Bizkaiko kultur erakundeekiko harremanak areagotuz eta unibertsitatea gizartera zabalduz. Horretarako, dagoneko indarrean dauden hitzarmenak berriztu eta sinergia berriak ere bultzatuko dira, EHUK euskal kultura sustatzen duten erakundeekin dituen harremanak hedatuz.

Era honetan, EHUK antolatzen dituen ekintza kulturalei ikusgarritasun gehiago ematea da helburua, unibertsitate barruko komunitateari eta unibertsitatetik kanpo, gizarte osoari. Horretarako zuzendaritza honen helburu nagusienetako bat EHU Kultura marka indartzea izango da, material grafiko (esku orriak, karteldegia) eta digitalaren (sare sozialak, web gunearren antolaketa) bitartez. Beraz, komunikazioari garrantzi berezia emango zaio, bai EHuko komunitatearekiko baita gizarte osoarekiko komunikazio estrategietan ere.

2.2. Jarduera ildo nagusiak

- Ikasleen sorkuntza babestu eta bultzatzeko berariaz sortutako sormen beken deialdia sortu eta plazaratzea. Guztira bost beka banatuko dira kulturaren arloko kategoria desberdinak sustatzeko helburuarekin. Etorkizunean beken diseinu eta zabalpena EHuko beste campusekin lankidetza egingo da.
- Aurreko ildoarekin lotuta, EHuko ikasle komunitatearen sorkuntza artistikoak ikustarazteko eta Bizkaiko Campusetako unibertsitate giroa pizteko asmoz, 2026ko apirilaren azken astean "Aste Kulturala" sortuko da. Bertan, egun bakoitzean ikasleek euren proposamen artistikoak publikoaren aurrera eramateko aukera izango dute, zuzendaritza honen babespean.
- EHuko Ikasleen, Euskara eta Kulturako Zuzendaritza guztiak kideak bilduko dituen Kultura Batzordea sortuko da, hain zuzen, kultura-programazioaren ildo nagusiak garatuko dituena.
- Aurrera eramaten diren ekitaldi guztien komunikazioa hobetzea, bai hasierako zabalpenean baita ekitaldiaren ondoren ere, testigantza sortu eta argitaratzerako unean. Zabalpena, gainera, unibertsitate barneko kanaletan egiteaz gain, kanpokoetara ere emango da, komunikabideetara hain zuzen.
- Dagoeneko indarrean dauden hitzarmenak sendotu agente estrategiko batzuekin: Loraldia.
- Aurrerapausoak proposatu EHuko komunitatearentzat baita gizarte osoarentzat ere erakargarriak izan daitezkeen proposamen berriean. Esaterako, Irakurketa Dramatizatuen Zikloa antolatu Idazle Elkartea eta EHAZERekin (Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea) elkarlanean.

- Sinergia berriak sortu lengoaia artistiko berriak oinarri hartuta. Horretarako, eragile berriekin harremanetan jartzea da helburua: BAD Bilbao Antzerki Dantza jaialdia, ACT festibala (Bizkaiko Antzerki Ikastegia eskolak antolatzen duena), LABO XL (Arte eszenikoen erakusleihoa), Okela sormen lantegia.

Jarraian, 2025-2026an programatutako ekintzen laburpena azalarazten da (egiteke daudenak):

GABRIEL ARESTI KATEDRA – KONTZERTUA. 12.12.25

Bizkaia Aretoa

ZINEBI UNIKOAK. 14.11.25

Bizkaia Aretoa

50º URTEURRENA GABRIEL ARESTI KATEDRA. 14.10.25

Bizkaia Aretoa

BEST jaialdia Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketa. 04.10.25

Bizkaia Aretoa

EHUkulturaren eguna: kontzertua eta emanaldia. 25.09.25

Leioako Campusa, Laboa Plaza

Festival Internacional de Cine Invisible Film sozialak. 10.10.25

Bizkaia Aretoa

Sormen Ola- Loraldia. 10.25-03.26

Leioako Campusean.


Peter Sacks. Erakusketa. 02.26

Bizkaia Aretoa.

Zinezzita filmak

Bizkaia Aretoa

- JA! Jaialdia 29.09.2025-31.10.2025



EHU

4.

ONGIZATE
ETA
JASANGARRITASUN
ZUZENDARITZA

4. ONGIZATE ETA JASANGARRITASUN ZUZENDARITZA

4.1. Helburu nagusiak

Lanera, ikastera eta Campuseko zerbitzuetara joatean, unibertsitateko kideen mugikortasun jasangarria ahalbidetzeko eta sustatzeko jarduerak bideratzeaz eta bultzatzeaz arduratuko da.

Unibertsitateko kideen ongizatea areagotzeko programak eta jarduerak koordinatzeaz eta sustatzeaz arduratuko da. Eginkizun izango ditu, halaber, unibertsitateko kide guztien jarduera fisikoa sustatzea, campuseko kirol jarduerak koordinatzea eta, osasuneko eta ongizateko programak koordinatuta, bizimodu osasungarria sustatzea.

Campus bakoitzean ongizateko eta zaintza integraleko zerbitzua sortzen elkarlanean eta koordinatuta arituko da Koordinazio eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordearekin.

4.2. Jarduera ildo nagusiak

- Sentsibilizazio-ekintzak egingo dira Europako mugikortasunaren astea dela eta. Horren leloa "Guztontzako mugikortasuna" da, eta pertsona guztiekin, beren dirusarrera maila, kokapena, generoa edo gaitasunak kontuan hartu gabe, garraio jasangarria eta eraginkorra eskuratu ahal izango dutela bermatzea du helburu. Garraiobide alternatiboak ikusarazi nahi dira. Horretarako, mugikortasun iraunkorra ospatzeko eta ikusarazteko jardunaldi bat egingo da.
- Hainbat erakunderekin lankidetzen arituko gara, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiarekin edo Eusko Jaurlaritzarekin, gure parte-hartzeak mugikortasun iraunkorra hobetzen lagun dezakeela uste den ekimenetan, eta egungo garraio-lineak berrikusten saiatuko gara, baliabideak hobetzen eta optimizatzen saiatzeko.

- Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuentzat gordetako espazioak sustatuko dira, eta bizikleta-erabiltzaileentzako aparkalekuak indartuko dira, behar hori ikusiz gero. Era berean, bizikleta elektrikoentzako aparkaleku itxi bat jartzea aurreikusten da Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- Dutxak dituzten zentroetan dutxen erabilera sustatu eta koordinatuko da, Campusera iritsi ondoren dutxak erabiltzea eskatzen duten garraio alternatiboen erabilera errazteko.
- Leioa-Erandio eremurako mugikortasun plana aurkeztuko da, eremu horretara joaten diren pertsona guztientzat garraio jasangarriagoa eta eraginkorragoa ahalbidetzen duten alternatiba desberdinak ikusgai jarri nahian.
- Bizkaiko Campusean Osasun Prebentzio Zerbitzu Integrala garatzeko beharrezko lanak hasiko dira.
- Kirol-jarduera sustatuko da, ahalik eta jarduera-espektro handiena estaltzen saiatuz, unibertsitate-komunitate gehienera iristeko. Campus osasungarriaren ideia sustatzeko, kirol zerbitzutik ekintza hauek egingo dira:
- Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapen orokorra. Unibertsitate-komunitateak egiten duen jarduera fisikoaren kantitatea eta kalitatea handitzea.
- Txapelketak eta lehiaketak.
- Naturako jardueren programa.
- Kirolaren Astea. Aste horretan, Unibertsitatean arlo horretan garatzen den jarduera ikusaraziko da, eta erabiltzaileak jardueretara erakartzeko ekintzak egingo dira.
- XX. Tipi Tapa, Osasunaren aldeko martxa, Bizkaia Aretoa eta Leioa-Erandio eremuko Unibertsitate Kiroldegia lotuko dituena.
- Komunikazioa. Kirolaren presentzia areagotzea Unibertsitateko sare sozialetan eta barneko komunikabideetan.
- Hainbat kiroletako unibertsitate-eskolak, kirola modu programatuan eta teknikari espezializatuekin egiteko, kirol jakin bat hobetu ahal izateko.

- Kirol-jarduerengatiko kredituak aitortzea.
- Goi-mailako kirolarentzako tutoretza-plana. Eguneratzea eta jarraipena egitea.
- Estatuko edo nazioarteko koordinazio-bileretan parte hartza (Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, Kirolaren Euskal Kontseilua...) eta beste unibertsitate batzuekin harremanetan jartzea.
- Beste erakunde batzuek jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko araudiak, dekretuak eta legeak diseinatzen laguntzeko sustatutako lan-mahaietan parte hartza (Kirolaren Euskal Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko Legea...).
- Eusko Jaurlaritzarekiko harremana sendotzea eta unibertsitate-komunitatea aktibatzeko programa espezifikoak ezartzeko aukera baloratzea.
- Goi-mailako kirolarentzako tutoretza-plana. Eguneratzea eta jarraipena egitea.
 - ✓ *Goi mailako kirolarentzako tutoretza planaren jarraipena eta hobekuntza landu dira.*
- Estatuko edo nazioarteko koordinazio-bileretan parte hartza (Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, Kirolaren Euskal Kontseilua...) eta beste unibertsitate batzuekin harremanetan jartzea.
 - ✓ *Estatuko eta nazioarteko koordinazio bileretan (Unibertsitate Kirolaren Espainiako Batzordea, Kirolaren Euskal Kontseilua...) parte hartu da eta beste unibertsitate batzuekin harremanak ezarri dira.*
- Beste erakunde batzuek jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruko araudiak, dekretuak eta legeak diseinatzen laguntzeko sustatutako lan-mahaietan parte hartza (Kirolaren Euskal Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-lanbideetan sartzeko eta jarduteko Legea...).

- ✓ *Beste erakunde batzuek jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko arraudiak, dekretuak eta legeak diseinatzen laguntzeko sustatu dituzten lan mahaietako kide izan gara.*
- Eusko Jaurlaritzarekiko harremana sendotzea eta unibertsitate-komunitatea aktibatzeko programa espezifikoak ezartzeko aukera baloratzea.
 - ✓ *Eusko Jaurlaritzarekin harreman arina mantendu dugu, unibertsitateko kideak aktibatzeko jarduera espezifikoak ezartzeko.*

5.

EKINTZAILETZA, ENPLEAGARRITASUN ETA TRANSFERENTZIAKO ZUZENDARITZA

5. EKINTZAILETZA, ENPLEGAGARRITASUN ETA TRANSFERENTZIAKO ZUZENDARITZA

5.1. **Helburu nagusiak**

Zuzendaritzaren eginkizunak dira Campusean UPV/EHUk ingurune sozioekonomikoko erakunde publiko eta pribatuekin dituen harremanak bultzatzea eta garatzea, Unibertsitatea-Enpresa lankidetza-programak sustatzea eta, oro har, Campusean ezagutza transferitzeko, enplegua sustatzeko eta baliabideak erakartzeko jarduerai laguntzea.

Ikasleen eta Partaidetzarako Errektoreordetza lankidetzan arituko da ekintzailetzaren kultura sustatzeko eta enplegagarritasuna hobetzeko jarduerak antolatzen eta egiten.

Enplegagarritasunari lotutako jardunaldi eta azoka guztiak koordinatu eta antolatutako ditu eta baita ikasleen eta ikasle ohien lanbiderako orientazio jarduerak ere.

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordearekin lankidetzan aritza campusean eta Bizkaiko lurrealde historikoan bertako erakundeekin elkarlanean antolatzen diren jakintza transferitzeko jarduerak bultzatzen eta garatzen.

Ikerketa jarduerari lotutako zeharkako prestakuntza jarduerak bultzatu eta antolatzea Bizkaiko Campusean, Ikerketa Errektoreordearekin elkarlanean.

5.2. Jarduera-ildo nagusiak

Ekintzailetza-jarduera.

- ZITEKen garapena, Bizkaiko Campusean ekintzailetza bultzatzeko ekintza-plan orokorra, eta haren hedapena. Programaren emaitzen jarraipena
- Zitek Portugalete, Zitek Leioa eta Zitek Bilbao oinarri teknologikoko enpresen inkubagailuen eta Sarriko eta Bilboko BAT dorreko ekintzailetza-gelen kudeaketa. Emaitzen jarraipena.
- Kultura ekintzailearen arloko jarduerak gauzatzea Bizkaiko Campusean.
- Ekin 48 antolatzea, Bizkaiko Campuseko ikasleen espiritu ekintzailea, sortzailea eta berritzalea sustatzeko.
- Handira Jo lehiaketa abiaraztea, doktorego-tesietatik jaiotako enpresen sorrera sustatzeko.
- Think Big 2026 Saria ematea Bizkaiko Campuseko ikasleen ekimen onenei, eta aurreko sariko parte-hartzaleen jarraipena egitea.
- Autoenplegu-indize handiko titulazioetan ekintzailetza-prestakuntzako IKASBERRI programa egitea.
- Zitek Ekintzaileen webgunea mantentzea eta egunearatzea
- ZITEKen webgunea hobetzea, ekintzailetzarekin lehen harremana izateko leku gisa. Ekintzailetza-prozesuaren ibilbideari buruzko oinarrizko informazioa sartuko da mundu honetara lehen aldiz hurbiltzen diren guztientzat. Horretarako, atal berri bat garatuko da webgunean, elkarreraginarekin eta ukitu gamifikatuarekin, erabiltzaileari begira erakargarriagoa eta dinamikoagoa izan dadin.
- Ekintzailetzako programa-kontratuaren kudeaketa.
- Enpresen arteko topaketen programa: Zitek Coffee.
- B-Venture-n parte hartzea, inkubagailuetako enpresak Euskadiko finantza-ekosistemara ezagutarazteko

- Emakumeekin erakundearekin eta, besteak beste, AED, Bilakatu, CEBEK, GEM eta MBAe3 erakundeekin lankidetzan aritza.
- DEMAk sustatuta, BFAren Enplegurako eta Ekintzailetzarako Foru Agentzia, Bizkaian ekintzaileta sustatzen duten erakunde eta erakundeen Sarekin sarean lankidetza eta parte-hartze aktiboa izatea.
- Tokiko eta unibertsitateko hainbat azokatan parte hartza, besteak beste, Kirolabizien edo Ingeniaritza Eskolako enpresa-foroan, Campuseko enpleguaren eta ekintzailetzaren eremutik egiten ditugun ekintzak ezagutarazteko.
- Unibertsitateko ekintzaileentzako beka-programa kudeatzea.
- Enpresentzako prestakuntza-pilulen programak egitea.
- Sarrikoko, Elkanoko, Arte Ederretako Fakultateko, Zientzia eta Teknologia Fakultateko eta Ingeniaritza Eskolako geletan eta masterretan hitzaldiak ematea, besteak beste.
- Ikerketa-proiektuen balorizazioa. Bizi-zientzien sektoretik hurbil dauden bi ikerketa-proiekturen transferentzia-potenzialaren azterketa.
- Hitzaldiak fakultate eta zentroetan zerbitzua ezagutarazteko.
- CEBEK Unibertsitate-enpresa-gizarte gelaren kudeaketa.

Enpleagarritasuna.

Ikasleentzako eta ikasle ohientzako lan-orientazioko zerbitzua kudeatzea

EAeko enplegatzaileen inuesta – CRUE egitea

- EHUn Arabako eta Gipuzkoako campusetako enplegu-azokak prestatzeko koordinazioa eta Bizkaiko Campuseko azokaren kudeaketa integrala.
- EHuko hainbat zentrorekin lankidetzan aritza titulazio bakoitzera irteera profesional espezifikoen jardunaldietan (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea,

Hezkuntza Fakultatea, ZTF/FCT, Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea...)

- Enplegu-zentroen eta EURES sarearen (Lanbide) arteko etengabeko lankidetzari eustea.
- Lanbiderekin lankidetzan aritza graduen eta graduondokoen laneratzeari buruzko txostenak egiteko eta zentroetan zabaltzeko.
- Lanbiderekin, Bizkaia Talentekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin gazteriaren eta enpleguaren arloan dauden hitzarmenak prestatzea, lortzea, gauzatzea eta kontuak ematea, hala nola 3R Gaztea
- "Basque Ambassadors Program" Bizkaiko atzerriko ikasle gazteak leialtzeko proiektuarekin eta "Talentia Challenge" Bizkaia Talentek (BFA/DFB) bultzatutako enpresa baten benetako erronkari aurre egiteko ekimen berritzailearekin lankidetzan aritza.
- UPV/EHUren eta Bizkaia with the talent erakundearren arteko koordinazioa eta ordezkaritza, egiten diren jardueren barruan, eta UPV/EHUK programa berriak proposatzea.
- Europa Global Training-en praktika profesionaletarako nazioarteko mugikortasun-programak diseinatzen eta gauzatzen jarraitza
- Konektalaren parte-hartze aktiboa: Euskadiko kalitatezko enplegurako komunitate digitala.
- Eusko Jaurlaritzaren Lehen Aukera programan parte hartza.
- Merkalan azokan parte hartza, Lanbidek antolatuta.
- ZainTalent-en parte hartza: zaintzaren eremuan Upskilling eta Reskilling-a sustatzen eta talentua erakartzen lan egiten duten eragile publiko eta pribatuen komunitatea.
- EHUKO tituludunentzako enplegu-eskaintzen kudeaketa eta enpresekiko harremana talentua erakartzeko.

Transferentzia

Unibertsitatearen, enpresaren eta gizartearen arteko ikasgelaren kudeaketa, CEBEKein

Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordetzarekin lankidetzan aritza, ikerketa zabaldu eta transferitzeko, STEM bokazioak sustatzeko, Innobasquerekin lankidetzan, DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean STEM karrerak sustatzeko jarduerak egiteko.

6. ESPERIENTZIA GELAK

6. ESPERIENTZIA GELAK

6.1. Helburu nagusiak

Esperientzien Gelen proiektua ezagutza eta jarduerak trukatzena bideratzea da bere helburu nagusia, honako ardatz hauetan oinarrituta:

Akademikoa: Giza Zientzietako eta Unibertsitate Hedapeneko Ikastaroetako Unibertsitate Tituluaren prestakuntza-eskaintza berrikustea eta etengabe hobetzea, eta hezkuntza-kalitatea ebaluatzea, ikasleen beharretara egokitzeko.

Soziala: Gizarteratzea eta aukera-berdintasuna bultzatzea, egoera ahuleko ikasleei sarbidea erraztuz eta gizarte-ekimen komunitarioekin lankidetzan arituz, bereziki, EHUren misioarekin zerikusia dutenekin.

Belaunaldien arteko: Belaunaldien arteko harreman esanguratsua sustatzea, prestakuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian benetako balio erantsia bilatzu.

Erakundeen arteko lankidetza: Unibertsitate-komunitatearekiko, erakunde publikoekiko eta hirugarren sektorearekiko lankidetza sendotzea eta zabaltzea, jarduera akademikoak eta sozialak garatzeko.

Romunikatiboa: Ikastetxearen ikusgarritasuna eta komunikazioa hobetzea, haren proiekzioa eta hedapena indartzeko, bai barruan, bai kanpoan.

Eraldaketa digitala: Ikastetxeko barne-prozesuen modernizazioa bultzatzea eta ikasleen gaitasun digitalak indartzea.

Kulturala: Ikasleen prestakuntza-esperientzia aberastea, haien garapen pertsonala eta soziala sustatuz, askotariko kultura-ekosistema batean sartuz eta parte hartuz.

Euskara eta euskal kultura sustatzea: Euskara eta euskal kultura ikastetxeko programazio akademiko eta kulturalean integratzea eta aktiboki sustatzea.

6.2. Jarduera ildo nagusiak

- Ardatz akademikoa: Giza Zientzietako tituluaren egungo ikasketa-planaren berrikuspena eta gogoeta bultzatzea, beste unibertsitate-eragile batzuekin lankidetzan. Ikasleei egindako iritzi-inkestaren berrikuspena bultzatzea, prestakuntzaren profilera eta Esperientzia Geletako ikasleen profilera egokitzeko (Dozentiaz programara egokitua). Ikasleen iritzi-inesta Unibertsitate Hedapeneko Ikastaroetara zabaltzea, ebaluatu eta, hala badagokio, berrikusteko. Mikrokreditzien bideragarritasuna aztertzea, prestakuntza-proposamen gehigarri gisa. Ikastetxea jarduera akademiko propioekin dinamizatzea eta beste batzuk hartzea (eraikina lagatzeko baldintzetara egokituta). Ikastetxea graduatzeko ekitaldi akademikoa eta tailerrak/mintegiak antolatzea, etab.
- Ardatz soziala: Bizkaiagararekin (eta, hala badagokio, beste erakunde edo proiektu instituzional edo sozialekin) koordinazioa areagotzea, egoera ahulean dauden segmentuetako ikasleen sarbidea errazteko. Komunitateko etxebizitza solidarioen programarekiko lankidetza estrategikoa aztertzea, ikastetxeko ikasleak laguntzeko eta bizigarritasuna hobetzeko proiektuetan integratzeko.
- Belaunaldien arteko ardatza: Prestakuntzan, ikerketan eta transferentzian belaunaldien arteko harreman esanguratsurako ekintzak sustatzea eta babestea, horretarako diseinatutako programekin lankidetzan.
- Erakundeen arteko lankidetzaren ardatza: ikastetxearren prestasuna mantentzea unibertsitate-komunitatearen jarduerak hartzeko. Erakunde

publikoen eta hirugarren sektoreko erakundeen gizarte- eta kultura-ekimenak babesten jarraitza, betiere lagapen-baldintzetara egokituta.

- Komunikazio-ardatza: Komunikazio Errektoreordetzarekin lankidetza aritza, ikusgarritasuna, hedapena eta komunikazioa hobetzeko. Proiektuaren proiekzioa indartzeko estrategia operatiboak diseinatzen laguntza.
- Eraldaketa digitalaren ardatza: Zentroko administrazio-prozesuen digitalizazioan aurrera egitea, bereziki aurrematrikula eta matrikula, Eraldaketa Digitaleko Errektoreordetzarekin koordinatuta. Alfabetatze digitaleko ekintzak bultzatza, ikasleen zeharkako gaitasunak indartzeko.
- Ardatz kulturala: Askotariko programazio kulturala antolatza erraztea, jarduera propioak barne hartuta, hala nola Abesbatza, Antzerki Tайлerra, Zine Forum eta Opera, ikasleen eta unibertsitate-komunitatearen implikazioa sustatuz. Campuseko kultur agendarekiko eta EHUKulturarekiko lankidetza indartzea, bere programazioko jarduerak hartuz, hala badagokio, eta unibertsitateko komunitatearentzako interesgarriak diren baterako ekimenetan parte hartuz. Erakusketak, hitzaldiak, kontzertuak eta irakurketak sustatza, baita kultura- eta gizarte-ospakizunak ere, betiere eraikina lagatzeko baldintzen esparruan.
- Euskara eta Euskal Kultura Sustatzeko Ardatza: Euskara eta euskal kultura ikastetxeko prestakuntza eta kultura programazioan integratzen laguntza.

7.
**MIGUEL
DE UNAMUNO
IKASTEGI
NAGUSIA**

7. Miguel de Unamuno Ikastegi Nagusia

7.1. Helburu nagusiak

Helburu nagusia Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusia eta bere hezkuntza-komunitate osoa EHUren eta inguruko gizartearen baitan eraldaketa ekosozial eta feministaren eragile aktibo bihurtzea da. Horretarako, gradu, graduondoko eta doktoregoetako 30 titulazio baino gehiagotako 200 ikasletik goraren gaitasuna aztertuko da, IRI eta TEKAZEkin batera, norabide horretan aurrera egiteko.

Ikasle, irakasle eta langileek eguneko 24 orduetan espazio bera partekatzeak ikasturte osoan ikaskuntza esanguratsua, sakona eta esperientziala egiteko aukera paregabea eskaintzen du, aniztasunez eta konplexutasunez betetako testuinguruan. Helburua da diagnostiko kolektibo bat egitea EHU Agenda 2030eko erronkei dagokienez: zein prestakuntza behar den identifikatzea, zein arlo funtzionatzen duten eta zeintzuk aldaketa behar duten zehaztea. Hortik abiatuta, jarduerak planifikatu eta gauzatuko dira, eta ondoren haien eragina ebaluatuko da.

Horretarako, lau batzorde eratuko dira, ikasleek, PDIk eta PTGASek osatutakoak: berdintasun eta feminismo batzordea; zaintza eta ongizate irizpideekin espazioak berrantolatzeko batzordea; jasangarritasun eta hondakinen batzordea; eta komunitate, inklusio eta belaunaldien arteko harremanen batzordea.

7.2. Jarduera-ildo nagusiak

- Ekintza nagusi horrez gain, beste jarduera hauek aurreikusten dira:
- Jarduera soziokultural, hezitzairen eta kirol-jardueren egutegi egonkorra sustatu eta sortzea 2025/26 ikasturterako, bizilagun gehiagoren parte-hartzearekin eta ikasleek protagonismo handiagoa hartuz. Esate baterako, tailerrak eta lehiaketak, prestakuntza-hitzaldiak, gizarte-gaiak lantzen dituzten erakusketa ibiltaria, edo natur guneetara txangoak antolatuko dira.

- Irailaren lehen asteetan harrera-prozesua hobetzea, eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntza indartzea.
- Zaurgarritasun-egoeran dauden EHUKO ikasleentzako plazak handitzea. Nazioarteko errefuxiatu-prozesuetatik datozen eta desgaitasuna duten pertsonei, Arrakasta programatik datozenak ere gehituko zaizkie. Kolektibo horientzako laguntza-prozesuak sistematizatu eta hobetu egingo dira.
- EHUKOak barne, gizarte- eta komunitate-erakundeekin lankidetza indartu eta zabaltzea, izaera soziala duten prestakuntza- eta kultura-jarduerak elkarrekin antolatzeko.
- EHUREN protokoloak eta baliabideak ezagutzen ematea ekintza ezberdinaren bidez, indarkeria matxistaren prebentzioarekin, bizikidetzarekin eta ongizate fisiko zein mentalarekin lotutakoak.
- Espazioak pertsona guztientzako leku seguru bihurtzea, ingurunearekin konprometituta eta pertsonen beharretara egokituta.
- Aurrematrikulazio eta matrikulazio prozesua berrikustea eta aurreratzea, unibertsitate-erresidentzien merkatuaren gorakadak sortutako errealitate berrira egokituz.
- Webgunea berritu eta komunikazio-kanpaina bat sortzea, Unamuno Ikastetxe Nagusiak eskaintzen dituen funtzionamendua eta aukerak EHUKO komunitateari zein gizarteari oro har ezagutarazteko.

8.
**BIZKAIA
ARETOA**

8. BIZKAIA ARETOA

8.1. Helburu nagusia

Bizkaia Aretoa-EHUko zuzendaritzaren helburuak 4 ardatzetan banatzen dira:

Eraikinaren kudeaketa: atal honetan jabearekin egindako kontratua landuko da, eraikinaren kudeaketa-kontratua lehiaketa bidez esleituko da, eta aretoren baten funtzioa aldatuko da, beste erabilera bat emateko. Eta, azkenik, espazioen okupazioa ahalik eta gehien optimizatzen dela zaintzea.

Unibertsitate-komunitatearen beharrak asetzea: unibertsitate-komunitatearen premiei erantzungo diegu, eta bertan egingo ditugu transferentzia- edo dibulgazio-

jarduera instituzionalak eta akademikoak. Eraikinaren jarduera: EHUnen biltzar-jardueraren zati handi bat hartzea.

EHUnen irudia: bertan egiten diren jardueren bidez, unibertsitatea bere ingurura hurbiltzen da, eta, aldi berean, EHUnen irudi positiboa gizartera zabaltzeko aukera ematen du.

8.2. Jarduera ildo nagusiak

- Ezarri ditugun helburuak une oro kontuan hartuta, hauek izango dira hurrengo ikasturteko jarduera-ildoak:
- EHUnenzat baldintzarik onenak lortzea bi kontratuetan.
- Areto batzuen egokitzapena kudeatzea, beste erabilera bat emateko.
- Espazioen erabilerari buruzko dekalogo bat egitea, espazioen erabilera optimizatzeko.

- EHUK egindako transferentzia- edo dibulgazio-jardueren kopurua mantentzea eta hobetzea, eraikinera bisitariak erakartzeko eta, horrela, EHU markaren alde egiteko.
- Eraikinean egiten den biltzar-jardueraren datuak hobetzea, kantitateari eta kalitateari dagokionez.
- Bilboko Udalak eta beste eragile batzuek herritarentzako antolatzen dituzten ekitaldi nagusietan parte hartzea.

9.
**KLINIKA
ODONTOLOGIKOA**

9. Klinika Odontologikoaren Zerbitzua

9.1. Helburu Nagusia

Laguntza odontologikoa ematea unibertsitate-komunitateari eta, oro har, gizarteari, arreta berezia eskainiz talde kaltebereei.

Atxikitako baliabideekin lankidetzan aritza, UPV/EHUn Odontologiako graduoko eta graduondoko praktika klinikoak kudeatzeko, irakaskuntza teorikoaren eta praktika klinikoaren arteko integrazio eraginkorra ahalbidetuz, ezarritako irakaskuntza-helburuekin bat etorri.

Odontologiarekin lotutako jarduera kliniko-irakaskuntzakoaren eta ikertzailearen garapena sustatzea EHUren eremuan.


2024-2025 ikasturtean, aldaketa-prozesu garrantzitsu bat hasi zen, klinikak jauzi kualitatibo bat egin zean, bai prestakuntza-mailan, bai kudeaketa-mailan, egungo gizartearen premiei erantzuteko, talde kalteberak azpimarratuz, eta, horrela, estatu-mailan erreferentzia den unibertsitate-gizarte klinika bihurtzeko.

9.2. Jarduera ildo nagusiak

2025-2026 kurtsorako, honako jardun-ildo nagusi hauek ezarri ditugu:

- Zerbitzuaren kalitatea eta prestakuntza hobetzea: zitazioak optimizatzu, etengabeko prestakuntzako ikastaroak sustatzu eta jardunbide kliniko egokien protokolo berriak ezarriz.
- Prozesu digitalen erabilera areagotzea egintza klinikoetan eta administratiboetan, ekipamenduan inbertsioak eginez.

- Materiala erosteko eta erabiltzeko prozesuak hobetzea, autofinantzaketa handitzera eta baliabideak optimizatzen bideratuta.
- Erakundeen arteko harremanak areagotzea, adingabeak, adineko helduak, haurdun daudenak eta luzaroan ospitaleratuta dauden pazienteak prebenitzeko programak sustatzen.
- Ahoko minbiziaren sinposioaren 11. edizioa antolatzen laguntzea Bizkai Aretoan.
- Jarduketa-programa bat ezartzea Bilborako lekualdaketa planifikatzeko.



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco